

OROITZAT

Donostiyak badu eskutuko baratz loretsu bat, gizaldi zarren leyotik ikusten dana: antziñako usai ederretan jariyotuba, guraso zarren izerdi goratubak landuba, kai-aldeko eguterak berotuba, ta zurriyolako kresalen zaparrak garraztuba.

Donosti zarreko baratz ortan badira: zugatz t'enborrak baserri-tarrentzat; sagar, udare ta marrubiyak kaletarrentzat; kanabel ta zuraje onak arrantzaliientzako. Baratzako zaintzale pizkor bat il da, Migel Salaberria jauna! Ongi ezagutzen zuten noski Donostiyako baserritar, kaletart'arrantzaliak.

Donostiarren ontarte guziyen bilguma beronen biyotzak zeraman. Zeñek, onek bezela, gure erri maitagarriyaren aberaspenak birdu? Gai ontan lan asko egin oi zuben: asaba zarren odola ongi chertuba zeukan: bere aide t'erritar guziyen maitale atsegiña zan: langillia, elizkoi sakona, jaikotiar berua..... Jainkuak sariyez pleitu du onezkeroz!

Miña zait Salaberria'ren eriyotza; donostiar gaztiak zarren aterpena opa oi degulako; bañan Jainkua'ren nayetara makurtzen geranok, goiko argi zoragarritan maitale izan gindezke berriz. Berriz ere bai, t'ontan daukaguazken-icharopena!

Otoitzak Salaberria'ren aldezt!.....

R. INZAGARAY

OROITZA



Gizon on batek meresi bazun
 Choko chiki bat zeruan,
 Josta zitezen aingeruchuak,
 Bildurik bere inguruan.....
 ¿Nor aukeratu; On Migel baizik?
 korai bat bere buruan
 Jarritzen diyot, ¡chit mereziya!
 Gudari baten moduan.....
 ¡Orlako gizon miraritzuak
 Guchi dira gaur munduan!.....

RAMÓN GUEL BENZU